

AJANGIZKO UDALA

AJANGIZKO UDALAK 2019KO IRAILAREN 25EAN OSPATUTAKO OHIKO BILKURAREN AKTA.-

Batzarreratuak:

Alkatea:

Koldo Carbonell Oihartzabal jauna

Zinegotziak:

*Leire Garatxena Larrabe andrea
Gaizka Aspiazu Otazua jauna
Janire Intxausti Juaristi andrea
Ekaitz Lejarzegi Urizar jauna
Iñigo Valencia Alacano jauna*

Bitarteko Idazkari-Kontuhartzailea:

Saioa Pineda Aranburu andrea

Ajangizko Udaletxean, 2019ko irailaren 25ean, arratsaldeko 20:00etan eta horretarako deialdia egin ondoren, Udal Osoa biltzen da ohiko bilera ospatzeko, goian aipatutako zinegotziekin.

1.- AZKEN BILERETAKO AKTAK IRAKURRI ETA ONESTEA, BEHAR BADA.-

2019ko uztailaren 1ean ospatutako antolaketa bileraren akta hautespenerako jarrita, bertaratutako zinegotzi guztiek onartu dute.

2019ko abuztuaren 22an ospatutako ez ohiko bileraren akta hautespenerako jarrita, bertaratutako zinegotzi guztiek onartu dute.

2.- ALKATETZAK EMANDAKO DEKRETUEN BERRI EMATE ETA ONESPENA, BEHAR BADA.-

- **Maiatzaren 29ko 2019/069 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETU.-** Lezamene baserrian bigarren etxebizitza sortzeko lanetarako baimenari ezetza.
- **Maiatzaren 31ko 2019/070 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Maiatzaren 31n Ogasun Batzordeak onetsitako F/2019/10 faktura erlazioa onartzea.
- **Ekainaren 3ko 2019/071 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun sailak 2019ko apirilaren 30ean egindako 93,81 euroko kopurua itzultzea.



AJANGIZKO UDALA

- **Ekainaren 3ko 2019/072 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko Udalarari UEMAko partaide modura dagokion 2019 urteko kuotari dagozkion 3.382,10 euro ordaintzea.
- **Ekainaren 3ko 2019/073 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Bizi-sare, Busturialdeko Garapen Iraunkorrerako elkartearen parte den einean, Ajangizko Udalak 2019ko 2.500,00 euroko ekarpena ordaindu dezala.
- **Ekainaren 4ko 2019/074 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** 2016ko maiatzaren 19an sinatutako hitzarmenean oinarrituta, Lea-Artibaialdeko Hedabideak S.L.ri 1.000,00 euro ordaintzea, 2019ko dirulaguntza modura.
- **Ekainaren 4ko 2019/075 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Elkargoan sartzearekin batera onartutako baldintzen arabera, Elkargoak eskuratutako ondasunen balioaren %1,63a, hau da, 3.711,79 euro ordaintzea, Ajangizko udaleko 2019ko udal aurrekontuko 231.43601 partidaren gain.
- **Ekainaren 5eko 2019/076 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.- Global Factori S.L. enpresari,** Datu pertsonalen babeserako asistentzia tekniko-juridikoa; Udala nazio mailako segurtasun eskemara egokitu eta datuen babeserako arau orokorraren aplikaziorako kontratua esleitzea, : 3.847,80 €ko prezioan.
- **Ekainaren 12ko 2019/077 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ekainaren 12an Ogasun Batzordeak onetsitako F/2019/11 faktura erlazioa onartzea.
- **Ekainaren 12ko 2019/78 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Etxez etxeko laguntzailearen borondatezko eszedentzia onartzea, 2019ko ekainaren 12tik lau hilabeterako.
- **Ekainaren 18ko 2019/079 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko 6. Poligonoko 3 eta 4 partzeletan kiwientzako biltegi eta nekazaritzako tresnak gordetzeko instalakuntza egiteko baimena ematea, aurkeztutako dokumentazioan oinarrituta, jabetza eskubidea salbu eta hirugarren pertsonetikiko kalterik gabe.
- **Ekainaren 18ko 2019/080 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Maderas Lejarzegi S.L. enpresari, Ajangizko 1. poligonoko 163 partzelatik egurra ateratzeko Ajangizko herri bideak erabiltzeko udal baimen ematea (Mendieta 66-67 eta Mendieta 78-79 etxebizitzentzako tarteko bidetik errotondora).
- **Ekainaren 18ko 2019/081 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Maderas Lejarzegi S.L. enpresari, Kanpantxuko 5. poligonoko 52,53, 58 eta 63 partzeletatik, 5. Poligonoko 59 eta 60 partzeletatik eta 5. Poligonoko 57 partzelatik egurra ateratzeko Ajangizko herri bideak erabiltzeko udal baimen ematea (Arabietan, Lurraska, Laubide, Martutxu).
- **Ekainaren 19ko 2019/082 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Alkatea ez dagoenean, kanpoan dagoenean edo gaixo dagoen kasuetan bera ordeztuko duten ondorengo Alkate Ordeak izendatzea:
Alkate Ordea: Leire Garatxena Larrabe andrea.
Alkate Ordea: Gaizka Aspiazu Otazua jauna.
- **Ekainaren 25eko 2019/083 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Egutegi arazoak direla eta 2019ko ekainaren 27rako egindako osoko bilkurarako deialdia bertan behera utzi eta deialdi berria uztailaren 1ean, arratsaldeko 20:00etan gai zerrenda berdinarekin egitea.
- **Uztailaren 1eko 2019/084 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 23.3 artikuloko araututakoaren arabera, 2019ko uztailaren 14tik 24ra bitartean (bi egunak barne), alkatearen oporraldian Alkatetzako funtzioak lehenengo alkateordea den Leire Garatxena Larrabe andrearengan ekudordetzea.
- **Uztailaren 1eko 2019/085 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** 2019ko 2. hiruhilabeteko zabor bilketa zerbitzuaren tasen padroia onartzea.



AJANGIZKO UDALA

- **Uztailaren 1eko 2019/086 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Joseba Lauzirika Mugarza jaunari, Kanpantxu 38ko Bengoetxe baserriko estalkian erreteila lanak egiteko baimen baldintzatua ematea, aurkeztuako dokumentazioan oinarrituta.
- **Uztailaren 3ko 2019/087 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Uztailaren 3an Ogasun Batzordeak onetsitako F/2019/12 faktura erlazioa onartzea.
- **Abuztuaren 1eko 2019/088 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Kanpantxu 56, Astobioeta-Goikoa baserria hezetasunetik babesteko lanak burutzeko lanak egiteko baimena ematea, aurkeztuako dokumentazioan oinarrituta.
- **Abuztuaren 1eko 2019/089 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Duñanabeitia Forestal S.L. enpresak Ajangizko 3. Poligonoko 157 eta 316 partzeletatik egurra ateratzeko herri bideak erabiltzeko jarritako 1.653,00 euroko bermea itzultzea.
- **Abuztuaren 1eko 2019/090 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Jose Antonio Etxebarria Etxebarria jaunak, Mendatako 1. Poligonoko 180 partzeletatik egurra ateratzeko Ajangizko herri bideak erabiltzeko jarritako 3.005,00 euroko bermea itzultzea.
- **Abuztuaren 2ko 2019/091 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Abuztuaren 2an Ogasun Batzordeak onetsitako F/2019/13 faktura erlazioa onartzea.
- **Abuztuaren 2ko 2019/092 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ibilgailuen baja dela kausa, 2019ko ibilgailuaren gaineko zergaren itzulketa burutzea.
- **Abuztuaren 5eko 2019/093 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Maderas Lejarzegi S.L. enpresari, 6. Poligonoko 100 partzelatik egurra ateratzeko Ajangizko herri bideak erabiltzeko udal baimen ematea (Use-Okana-Lurraska-Maier).
- **Abuztuaren 5eko 2019/094 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Mendieta 73 eskuma, Ibai Ertz etxeko sukaldea zaharberritzeko lanetarako baimena ematea, aurkeztuako dokumentazioan oinarrituta.
- **Abuztuaren 6ko 2019/095 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Gastuen partiden arteko kredituen transferentziarako espedientea.
- **Abuztuaren 16ko 2019/096 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Minusbaliotasuna dela kausa, motordun ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen ordenantzak 4. artikuluan, jasotzen duen salbuespena kontutan hartuta, 7939-HHZ ibilgailuarekiko zerga salbuespena onartzea.
- **Abuztuaren 16ko 2019/097 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Abuztuaren 16an Ogasun Batzordeak onetsitako F/2019/14 faktura erlazioa onartzea.
- **Abuztuaren 27ko 2019/098 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Herriko Tabernaren egokipenerako exekuzio proiektuaren erredakzioa eta lanen zuzendatitza Berriz Arkitektoak S.L.P.ri esleitzea 18.148,79 €ko prezioan.
- **Abuztuaren 27ko DECRETO DE ALCALDIA N° 2019/099.-** *Autorizar al letrado del Ilustre Colegio de Abogados de Bizkaia, D. Iraultza Bilbao Uriarte para proponer la suspensión del procedimiento ordinario 173/2019-D que se tramita ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo nº4 de Bilbao, en relación al recurso interpuesto por Maier S.Coop. con fecha 12 de junio de 2019 contra el Decreto de Alcaldía 2019/055, de 11 de abril, por el que se desestima el recurso de reposición interpuesto contra el Decreto de Alcaldía 2019/013, de 11 de febrero.*

3.- EUOPAR BATASUNEN DATUAK BABESTEKO ERREGLAMENDU OROKORRAK ARAUTZEN DUEN DATUAK BABESTEKO AJANGIZKO UDALEKO ORDEZKARIAREN IZENDAPENA, BEHAR BADA.-



AJANGIZKO UDALA

Europar Batasuneko datuak babesteko erreglamendu orokorra 2018ko maiatzaren 25etik aurrera nahita nahiez ezarri behar da. Egun horretarako, tratamenduen arduradun eta eragile guztiek Erreglamenduko aurreikuspenetara egokituta egon beharko dira.

Besteak beste, Administrazio publikoak, eta horien artean Udala, datuak babesteko tratamenduen arduradun edo eragile izatea dagokio. Udala Erreglamendu horretara egokitu ahal izarteko, zortzi urratsetan laburbildu ditu Datuak Babesteko Euskal Bulegoak egin beharreko pausuak:

1. Datuak babesteko ordezkaria izendatzea
2. Tratamenduetn barne erregistroa ezartzea
3. Tratamenduen legitimazioa berrikustea
4. Interesdunei ematen zaien informazioa berrikustea
5. Eskubideak egikaritzeko prozedurak berrikustea
6. Tratamendu-eragileekin dauzkaten kontratuak berrikustea
7. Arriskuen azterketa egitea eta segurtasun neurriak berrikustea
8. Eraginaren ebaluaziorik egin behar den zehaztea

Biscaytik Fundazioak, udalak beraien bitartez kudeatzen dituen datuekiko Zerbitzuak burutzeko eskaintza egin zuen, baina horretarako beharrezkoa zen Datuak babesteko ordezkaria izendatzea. Ordezkari honen eginkizun nagusiak honakoak lirarteke:

- a) Tratamenduaren arduradunari edo tratamendu-eragileari informazioa edo aholkularitza ematea.
- b) Gainbegiratzea ea tratamenduaren arduradunak eta eragileak Erreglamendu orokorra betetzen duten, honakoak barne:
 - erantzunkizunen esleipena
 - Kontzientziazioa eta langileen prestakuntza
 - Kasuan kasuko auditoriak
- c) Datu-babesaren gaineko eraginaren ebaluazioaren inguruan aholkularitza ematea eta beraren aplikazioa gainbegiratzea.
- d) Kontro-agintaritzarekin lankidetzan eta horiekiko harremanetarako gune moduan jardutea.

Españak Europar Batasuneko Erreglamenduak bere araudian egokitu gabe dituela kontutan hartuta, puntu askotan zalantzak daude: nor izan behar dan ordezkaria adibidez, udal txikien kasuan langile kopurua murriztua denean, kanpo eragilerik izendatu behar dan...

Zalantza hauek konpondu bitartean eta indarreango barne araudirik izan bitartean, Ajangizko Udaleko Datuen babeserako ordezkari modura Idazkaria izendatu zuen 2018ko maiatzren 18an osoko bilkurak.

Egoerak berdin jarraitzen duela kontutan hartuta eta Ajangizko Udalean Idazkaria datuen arduradun, tratamenduen arduradun, eragile... dela ikusita, datuen babeserako ordezkari modura kanpoko enpresa bat izendatzea proposatzen da, Global Factory enpresa alegia.

Enpresa honek 900 euroko aurrekontua (1.089,00 € BEZ barne) aurkeztu du udaletxean, urte betez burutuko duen proiektuarekin batera. Idazkariak azaldutakoaren arabera, udal aurrekontuan badago gastu honi aurre egiteko partida, 920.22799 alegia.



AJANGIZKO UDALA

Proposamena botaziora aurkeztuta, bertaratutako zinegotziek aho batez onartu dute, Global Factory S.L. enpresa Ajangizko Udaleko datu pertsonalen babeserako ordezkari lanetarako esleitzea, 2019ko otsailaren 19ko 2019.030 erreferentzia zenbakidia duen aurrekontuan oinarrituta.

4.- ETXEZ-ETXEKO LAGUNTZAILE LANPOSTUAREN AMORTIZAZIOA DELA ETA UDAL LANPOSTU ZERRENDAREN ALDAKETAREN ONARPENA, BEHAR BADA.-

Alkatetzak 2019ko irailaren 18an, pertsonal buru modura egindako proposamena ikusita, udalbatzak aho batez onartzen du:

Lehenengo.- Ajangizko Udaleko Plantila Organikoa eta Lanpostu zerrenda aldatzeko prozedura hastea, etxez etxe laguntzaile lanpostua amortizatuz.

Bigarren.- Espedientean aditzera ematen dena kontutan hartuta, etxez etxezko laguntzailearen kaleratze prozesuari ekitea, lan itunpeko pertsonalaren kaleratze objetiboan oinarrituta, Langileen Estatutuaren Testu Bateratuko 52 c) eta 51.1 artikuluetan oinarrituta.

Hirugarren.- Espedientea behar bezala tramitatuta, Osko bilkurak onartuko du udal lanpostu zerrendaren aldaketa.

5.- KREDITU GEHIKUNTZA BIDEZKO UDAL AURREKONTUAREN 2/2019 ALDAKETAREN ONARPENA, BEHAR BADA.-

Alkate Udalburuak azaltzen duenez, aurretik aipatutako amortizazioaren ondorioz, langilearekin adostu beharreko indemnizaziorako beharrezkoa da partida nahikoa izatea. Horrez gain, Kanpantxun Tntorretik Maierrerako bidearen ziurtasuna bermatu nahian, bide gorria kendu eta oinezkoentzako bide berri bat egiteko asmoa dago. Horretarako aurretik proiektu bat egin behar dela kontutan hartuta, proiektua esleitzeko partida ere sortu beharra dago.

Horren bestez, Udal honetako Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Halaber aurrekontu-aldaketa honek Ajangizko Udalaren finantza-egonkortasuna abenduaren 20ko 9/2013 Lege Organikoak ezarritako terminoetan ez duela konprometitzen adierazten duen Idazkari-kontuhartzaileak iraunkortasunari buruz egindako txostenaren berri ematen da.

Era berean, Ogasun Batzordeak 2019ko irailaren 19an egindako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri da.

Eztabaidatu ondoren bertaratutako zinegotziek aho batez onartu dute:



AJANGIZKO UDALA



Lehenengo.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako 2/2019 espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko laburpenaren arabera:

KREDITU GEHIKUNTZAK / AUMENTOS DE CREDITO

Aurrekontu partida Partida presupuestaria	Izena / Denominación	Gehikuntzak / Aumentos
920.13102	Indemnizazio eta finikitoa	20.000,00 €
920.64301	Kanpantxuko oinezkoentzako biderako proiektua	3.000,00 €
GEHIKUNTZAK GUZTIRA / TOTAL AUMENTOS ...		23.000,00 €

FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK / RECURSOS QUE LOS FINANCIAN

Kapitulua / Capítulos	Izena / Denominación	Zenbatekoa / Importe
87001	Diruzaintzako gerakina / Remanente de Tesorería	23.000,00 €
GUZTIRA / TOTAL		23.000,00 €

Bigarren.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

6.- 2019 URTEAN GARAPENERAKO LANKIDETZA PROIEKTUETARAKO DIRULAGUNTZA JASOTZEKO DEIALDIA ETA OINARRI ARAUTZAILEAK ONARTZEA, BEHAR BADA.-

Alkate udalburuak, ondoren transkribatzen den, garapenerako lankidetzaren proiektuetarako dirulaguntzak jasotzeko deialdia eta oinarri arautzailea aurkezten ditu.

2017ko abuztuaren 7tik indarrean dagoen Diru laguntzak emateko modua arautzen duen udal ordenantzaren eta diru laguntzen plan estrategikoan oinarrituta burutu da proposamena.

Proposamena botaziora aurkeztuta, bertaratutako zinegotziek aho batez onartu dute.

2019 URTEAN GARAPENERAKO LANKIDETZA PROIEKTUETARAKO DIRULAGUNTZA JASOTZEKO DEIALDIA ETA OINARRI ARAUTZAILEAK

1.- Xedea.-

2019 urtean norgehiagoka erregimenean gauzatzeko Garapenerako Lankidetzarako proiektuei ematen zaien dirulaguntza arautzea da oinarri hauen xedea.

Lankidetzaren eta gizarte sentsibilizazio proiektu zehatzei emango zaizkie laguntzak.



AJANGIZKO UDALA

Garapenerako Lankidetzak, herrien arteko elkartasunaren adierazgarri, herrialderik behartsuenei lagundu nahi die, garapenaren bideak etengabe aurrera egin dezaten.

2.- Erakunde Onuradunak.-

2.1.- 2019 Garapenerako Lankidetzaren alde lan egiten duten pertsona juridikoak izango dira onuradunak:

- a) Garapenerako Gobernu kanpoko Erakundeak (GGKE)
- b) Garapenerako Lankidetzaren alde lan egiten duten nortasun juridikodun irazbaz asmorik gabeko Elkarte eta Erakundeak.


2.2.- Dirulaguntzak eskatzeko, elkarte eta erakundeek, ondoko oinarri espezifikoetan, Ddirulaguntzak arautzen dituen Udal Ordenantzan eta gainontzeko arautegian jasotako baldintzak bete beharko dituzte.

- a) Legalki eratuak eta dagokion erregistro publikoan inskribatuta egotea, gutxienez urte beteko aintzinasunarekin.
- b) Bere helburuetan Garapenerako Lankidetzako ekintzak aurrera eramatea egotea, lagunkidetasuna landu eta lankidetzaz izatea helburu nagusia.
- c) Irabazi-asmorik ez edukitzea.
- d) Elkarlanerako ekintzetan esperientzia ziurtatu. Helburuak betetzeko azpiegitura egokia izatea.
- e) Euskal Autonomi Erkidegoan (EAE) egoitza ezatea, edota Garapenerako bidean dauden Elkarte edo Erakundeak izanez gero, Ajangizko batekin hizketakide-harremanak izatea.
- f) Egokia den publizitatea eman beharko zaio onuradunen aldetik, hau da, jasotako finantziario publikoarena.

2.3.- Ez dira erakunde onuraduntzat joko:

a) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko 24. artikuluan xedatutakoaren arabera beren onarpen edo funtzionamendu prozeduretan sexu arrazoiengatik baztertzeko duten elkarte eta erakundeak.

b) Sexu diskriminazioagatik zehapen administratibo edo penalen bat izan duten pertsona fisiko eta/edo juridikoak, kasuan kasuko zehazpenean ezarritako epean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko 3. artikuluan eta Emakume eta Gizonen arteko benetako Berdintasunari buruzko martxoaren 22ko, 3/2007 Lege Organikoan xedatutakoarekin bat.



AJANGIZKO UDALA

2.4.- Herri Administrazioako Erakunde edo Zerbitzuak eta banketxe eta aurrezki kutxak ezingo dute dirulaguntzarik jaso.

3.- Dirulaguntzaren gehieneko kopuru osoa.

Deialdi honetara bideratutako kreditua ZORTZIEHUN EUROkoa da (800,00 €) udal aurrekontuko 230.48105 partidaren gain,

Dirulaguntza hau eta beste erakunde publiko edo pribatuetatik jasotako bestelako laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak bateragarriak izango dira, Dirulaguntzak emateko Arauak jasotzen dituen Ordenantzan zehaztutakoarekin bat, beti ere, guztien zenbateko osoa, proiektuaren zenbatekoa osoa gainditzen ez duen bitartean.

4.- Diruz lagundu daitezkeen proiektu eta gastuak.-

4.1.- Diruz lagundu daitezkeen proiektuak.

Honako ezaugarri hauek betetzen dituzten proiektuei emango zaie dirulaguntza:

- a) Garapenerako bidean dauden herrietan burutzea.
- b) Gizarte garapen eta ekonomiko orekatu bat, edota osasun, hezkuntza, ongizate, kultura, giza eskundeen promozioa, demokraziaren garapena, norbanako eta taldekako askatasunak, eta abar arloak izan ditzatela helburu.
- c) Laguntzak herritar guztientzat izatea, arraza, erlijio, sexua eta abar kontutan izan gabe.
- d) Inposaketa kulturala bazter batera utzi eta herriaren ingurugiroa eta idiosinkrazia errespetatu dezatela.
- e) Herritarren parte hartze demokratikoa bultzatu dezatela.
- f) Herritarrak hurbiltzeko asmotan, garapenaren, arrazakeriaren, xenofobiaren eta giza eskubideen lankidetzara arazoak eta oinarriak azaltzen dituzten programak, laguntza jaso ahal izango dute.


4.2.- Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

Proiektuaren izaerari eta garapen normalari erantzun dioten eta epearen barruan egindako proiekturako beharrezko gastuak, koste zuzen bezala diruz lagungarriak izango dira, beti ere azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorraren eta Dirulaguntzen Odenantzan zehaztutako baldintzekin.

Proiektuari zuzenean lotutako administrazio gastuak zeharkako kostu modura lagungarri izan ahal dira. Gastu horiek ez dira inolaz ere emandako dirulaguntza kopuruaren %5a baino gehiago izan.

5.- Eskaerak aurkeztea.

5.1.- Eskaera eta aurkeztu beharreko agiriak.



AJANGIZKO UDALA

Dirulaguntza eskaerak Ajangizko Udaleko Erregistro Orokorrean edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako bitartekoren baten bidez aurkeztu beharko dira, honako agiri hauekin batera:

- Legezko ordezkariaren NANA eta elkartearen IFK (lehen aldiz aurkezten badute edo aldaketarik egin badute).
- Behar bezala legeztatutako elkarte erdo erakundeko estatuten kopia (lehen aldiz aurkezten badute edo aldaketarik egin badute).
- Hirugarrenen alta inprimakia edo aurkeztu izanaren aipamena.
- Garapenerako Lankidetzeta proiektua.

Eskaera aurkezteak, Dirulaguntza honen deialdi eta oinarriak eta Dirulaguntzak emateko modua arautzen duen Ordenantzak jasotako guztiaren onarpena suposatzen du.

5.2.- Aurkezpen epea.

Eskaerak aurkezteko epea, deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren hurrengotik hasita hilabete naturalekoa izango da.

6.- Salbuespenak.

Onuradunek ez dituzte dirulaguntzak jasoko instantziak aurkezteko epean Udala eta Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak eguneratuta ez badituzte; era berean, Dirulaguntzak emateko modua arautzen duen Ordenantzak araututako arrazoiengatik ere. Ziurtagiriak aurkezte hutsak ez du esan nahi ziurtagiri horiek egokiak direnik.

7.- Betebeharrak.

7.1.- Onuradunak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritako printzipio orokorrak bete beharko ditu bere jardunetan.

7.2.- Onuradunak ezin izango du hizkuntza sexistarik erabili bere dokumentu, publizidade, irudi edo materialetan; irudi diskriminatzaileak eta estereotipo sexistak sagiestuko ditu; eta sustatuko duen irudian berdintasun balioak, presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna zein rolen eta genero-identitateen aniztasuna isladatuko da.

7.3.- Onuradunak emandako dirulaguntza onartu egin beharko du. Dirulaguntza eman izana jakinarazi eta hamabost eguneko epean pertsona edo erakunde onuradunak dirulaguntzari berariaz eta idatziz uko egiten ez badio, dirulaguntza onartu duela ulertuko da.

7.4.- Proiektuan edozein funtsezko aldaketa egiteko, bai garapenean zein exekuzioan, zein hartzaole edota bertako protagonisten aldetik, proiektua egiteko epea amaitu aurretik Ajangizko Udalarari aurkeztu beharko zaio idatziz aldaketa, beronek espresuki baimendu dezan.

8.- Eskabideak baloratzeko irizpideak.-



AJANGIZKO UDALA

Dirulaguntzak emateko prozedura norgehiagoka izango da. Prozedura horretan dirulaguntzak emateko aurkeztutako eskabideak elkarrekin konparatzen dira, haien arteko lehentasuna ezartzeko.

Udalak duen kreditua kontutan hartuta, proiektu bakoitzak lortutako puntuazioaren arabera banatuko da proportzionalki kopurua (beti ere proiektuaren finantziazioaren %75a gainditzen ez baldin bada).

Ajangizko Udalak honako irizpide eta balorazio mugak hartuko ditu kontutan (gehienez 100 punturaino). Gutxienez 50 puntu lortzen ez dituzten egitasmoek ez dute dirulaguntzarik jasoko.

- a) Proiektuaren interesa eta egokitasuna, gehienez 40 puntu.
- b) Eskatzailearen kaudimen ekonomikoa, gehienez 15 puntu.
- c) Proiektuaren bideragarritasuna, gehienez 15 puntu.
- d) Emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasuna sustatzen dituzten ekintzen intzidentzia, gehienez 10 puntu.
- e) Proiektuaren gizarte helburuak, gehienez 10 puntu.
- f) Ajangizko herritarren inplikazioa, gehienez 10 puntu.

Dirulaguntzak urtean zehar burutzen diren proiektu eta gastuetarako izango dira.

9.- Prozeduraren instrukzioa

Prozeduraren organo instrukzio-egilea ongizate arloko zinegotzia izango da.

Dirulaguntza eskaerak jasota, Ogasun Batzordeak egingo du haien egiaztapen eta azterketa, Baliospen Batzorde bihurtuta.

Eskaerak aurkezteko epea igarota, eskaeran antzemandako hutsak konpontzeko eskatu ahal izango dio interesatuari Batzordeak; horretarako hiru laneguneko epea izango du, jakinerazpena egiten den biharamunetik hasita. Jakinerazpen horretan adieraziko zaio, emandako epean hutsa konpontzen ez badu eskaera bertan behera uzten duela ulertuko dela.

Aurkeztutako eskaerak aztertu ostean, eta hala badagokio, hutsak konpontzeko epea amaituta, Batzordeak txostena egingo du, gutxienez honako datu hauek jasoz: ezetsitako eskaerak eta ezetzaren zergatia, aintzat hartutako eskaerak, horiei eman beharreko dirulaguntzaren kopurua eta oinarrietan aurreikusitako eskakizunak betetzen direlako ziuragiria.

Organu bideratzaileak txostena jaso ostean, beste txosten bat egingo du, eta bertan bere esku duen informazioaren arabera onuradunek dirulaguntzak jasotzeko beharrezko eskakizun guztiak betetzen dituztela jarri beharko du.



AJANGIZKO UDALA

Organu instruktoreak ebazpen proposamena egingo du, Baliospen Batzordeak emandako txostena oinarri hartuta, dirulaguntza ematen duen organuaren aurrean, Alkatearen aurrean alegia.

Ebazpenean berariaz, honako hau jasoko da:

- Eskatzaileen zerrenda
- Dirulaguntzak jasoko dituzten onuradunak eta zenbatekoak
- Balorazio irizpideak
- Gainerako eskaerak ezesteko zergatiak.

Prozedura ebazteko eta jakinerazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da, eskaerak aurkeztutako epea amaitu eta hurrengo egunetik hasita. Epea igarota berariazko ebazpenik eman eta jakinerazi ez bada, interesdunek eskaera ezetsi egin zaiela ulertuko dute, administrazioak erantzunik eman ez duelako.

Herri Administrazioen prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak araututakoaren arabera egindako da ebazpenaren jakinerazpena.

Berariazko ebazpen-egintzen kontra, berraztertze errekurtsua jarri ahal izango da egintza eman duen organuaren aurrean, edo zuzenean, administrazioarekiko auzietarako errekurtsua.

10.- Dirulaguntzen zenbatekoa eta ordainketa.

Eskatutako gastuen %75 finantzatu ahal izango da, oinarri hauetan xedatutako kreditu osoa muga dela.

Onuradunari emango zaion zenbatekoa Baliospen Batzordeak egindako txostenean zehaztutakoa izando da, zortzigarren oinarrian finkatutako irizpideak oinarri hartuta.

Dirulaguntzaren zenbatekoa, ez bakarka ez beste dirulaguntza batzuei lotuta, ezin izango du gainditu, onuradunak garatu beharreko jardueraren kostua.

Dirulaguntza ematen duen organuaren ebazpena eta gero ordainduko da dirulaguntza.

11.- Justifikazioa.

Jasotako dirulaguntzak egiaztatzeko, onuradunak honako dokumentazioa aurkeztu beharko du:

- Justifikazio memoria
- Diru-sarrera eta gastuen balantzea.
- Faktura eta ordainketa ziurtagirien kopia.
- Helburu berdinarekin beste erakunde batzuei eskatutako finantziazio iturrien edo/eta eskatutako dirulaguntzen zerrenda (onartutakoak edo ebatzi gabeak).
- Egindako publizitatearen ale bat.
- Sortutako materialaren ale bat.

Justifikazioa aurkezteko epea 2020ko otsailaren 28rartekoa izango da, egun hau barne.



AJANGIZKO UDALA

12.- Arau haustek, zehazpenak eta itzulketak.

Arau-hausteei eta zehapenei buruzko guztia Dirulaguntzak emateko modua arautzen duen Ordenantzak xedatutakoaren arabera egingo da.

Itzulketarako prozedura eta arrazoiak dirulaguntzak arautzeko ordenantzan xedatutakoak izango dira.

13.- Araubide juridikoa.

Oinarri hauetan xedatu ez den guztian Dirulaguntzak emateko modua arautzen duen Ordenantzak jasotzen duena aplikatuko da.

7.- 2020KO PREZIO PUBLIKOAK ONARTZEA BEHAR BADA.-

Tokiko Ogasunak arautzen dituen Legeko Testu Bateratuak 41. Artikuluan araututakoaren arabera, tokiko entitateek, bere kompetentziadun zerbitzuak eskaintzeagatik prezio publikoak jarri ditzakete, beti ere testu bereko 20.1 B) artikuluan arautzen diren baldintzak betetzen ez baldin badira.

Administrazio Publikoen Prozedura amankomuna arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legeko 45. Artikuluak jasotakoaren arabera, prozedurak eskudun organuak hartutako erabakia eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea besterik ez luke beharko.


Akta honi eransten zaion proposamena botaziora aurkeztuta, bertaratutako zinegotziek aho batez onartu dute.

8.- 2019KO 2. HIRUHILEKO AURREKONTUAREN EXEKUZIOARI BURUZKO INFORMAZIO EMATEA.-

Idazkari Kontuhartzaileak 2019ko 2. hiruhileko aurrekontuaren exekuzioari buruzko 2019ko abuztuaren 8an egindako txostena aurkeztuta eta Ogasun Batzordeak 2019ko abuztuaren 16an emandako oniritzia ikusita, bertaratutako zinegotziak jakitun geratzen dira, honako dokumentazioa aztertu ondoren:

- Diru-sarrera eta gastuen exekuzio egoera
- Diru-zaintzako egoera
- 2019ko ekainaren 30erarteko Kontaketa Akta
- Hornitzaileei batz besteko ordainketa epea
- Hornitzaile eta kontratistekin egindako eragiketen laburpena

9.- 2019KO 2. HIRUHILEKO BERANKORTASUN TXOSTENAREN BERRI EMATEA.-



AJANGIZKO UDALA

Idazkari Kontuhartzaileak, 2019ko 2. hiruhileko ordainketa epeei buruz 2019ko uztailearen 30ean egindako txostena aurkeztuta eta Ogasun Batzordeak 2019ko abuztuaren 2an emandako oniritzia ikusita, bertaratutako zinegotziak jakitun geratzen dira.

Txostenaren emaitzaren arabera, Ajangizko Udaleko 2019ko 2. hiruhileko datuek zera adierazten dute:

2. Hiruhilekoan:

- 1) Ajangizko Udalak ordainketen %100 legezko epean burutu dituela
- 2) Ajangizko Udalaren ordainketa epearen media 4,57 egunekoa da.
- 3) Hiruhilekoaren bukaeran ordaintzeko dauden fakturen %100 ordainketarako legezko epea barruan daudela.

10.- GERNIKA-GERNIKESADO FARMAZIA-ZONALDE BATERATUARI BURUZKO INFORMAZIO EMATEA.-

1997ko azaroaren 20an, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak Gernika-Gernikesado zonaldeen batura onartu zuen igande, jaiegun, larunbat goiz eta gabeko urjentzia orduetarako, urjentziatzko orduetan farmazia Gernikan egon behar zuelako baldintzarekin.

Batutako farmazia zonaldeak Gernika, Busturia, Elantxobe, Forua, Gautegiz Arteaga, Ibarrangelu, Muxika, Munitibar, Ajangiz, Ereño, Errigoiti, Kortezubi, Mendata, Morga, Murueta, Nabarniz eta Arratzu hartzen ditu barne.

2019ko ekainaren 19an, Bizkaiko Farmazialarien Bazkun Ofizialak, 1997an onartutako batura aldatu eta batutako Gernika-Gernikesado zonaldeari Bermeoko Farmazia eremua batzea eskatzen du, Bermeo, Mundaka eta Sukarrieta batzen dituen. Honekin urjentziako orduetan hiru zonaldeak batuta egongo lirake. Proposamenaren arabera, urjentziatzko ordutegian Gernikako farmazia fijo batek eskainiko luke zerbitzua, eskualdeko erdigunea delako eta Gernikan dagoelako ospitala. Bermeoko zonaldean, 00:00etarainoko eta 8:00etatik 9:00etara bitarteko errefortzuzko farmazia bat egongo litzateke.

Farmazia Zuzendaritzak eskaera hau Osasun Sailari eta afektatutako hogeitau udalerriei eman zien.

Batez ere Bermeoko udala da proposamenaren kontra azaltzen dena, bertako biztanleak gauez farmaziarik beharko balute Gernikara joan beharra izango bait lukete. Orduetegi honetan garraio publikorik ez dagoela adierazten du eta batez ere pertsona nagusien kalterako izango litzatekela neurria. Bermeoko biztanleez gain, Mundaka eta Sukarrietakoak ere kaltetu suertatuko lirakekela aipatzen du.

Farmazia Antolaketarako Zerbitzuak egindako txostean, ondo ikusten dute farmazia fijo batek urjentziatzko zerbitzua ematea. Baina horrez gain, desplazamenduen denbora, Bermeoko Farmazia Zonaldearen biztanle kopurua eta honek udal aldian duen igoera eta Bermeon gaueko urjentziatzko mediku asistentzia ere badagoela kontutan hartu beharrekoa dela aipatzen du.

Uztailearen 29ko 188/1997 Dekretuak 20.1.c) artikuluan farmazia zonaldeen batura egiteko biztanleek farmazia bulego batera ibilgailuz eta trafikoko neurriak errespetatuz hamabost minutu



AJANGIZKO UDALA

baino gehiago ez izatea bermatu behar dela jasotzen du. Aztertutako proposamenak ez du puntu hau bermatzen Bermeoko Farmazia Zonaldeko biztanleei dagokionez. Horrez gain, Bermeoko Farmazia zonaldea gaur egun Gernikako farmazia zonaldea (Gernikesadorekin batu gabe) baino handiagoa dela aipatu behar da, eta hori Bermeoko zonaldeak uda aldean duen biztanle igoera kontutan hartu gabe.

Osasun Sailak, farmazialarien egoeraren hobekuntzaz gain, biztanleei eskaintzen zaien zerbitzuaren egokitzapena kontutan hartuta, ez du Bizkaiko Farmazialarien Bazkun Ofizialak aurkeztutako proposamena onartu, eta horren bestez egoera lehenean utzi du.

11.- BIZKAIKO PENTSIONISTEN MUGIMENDUAREN PROPOSAMENA ONARTZEA, BEHAR BADA.-

Gaizka Aspiazu zinegotziak, ondoren transkribatzen den Bizkaiko Pentsionisten Mugimenduak aurkeztutako mozioa irakurrita, bertaratutako zinegotziek aho batez onartu dute.

Pentsio Mugimendua kalean dago 2018ko urtarrilaren 15etik.

Denbora aurrera doa, hauteskunde mota asko egin dira azken garaian eta gure mobilizazioekin lortutako emaitzak ez dira sendotu.

Prekarietatea eta pentsioen murrizketa ekarri diguten Lan eta Pentsioen Erreformatik, indarrean daude, baita bere ondorioak. Gero eta adineko pertsona eta jubilatutako gehiagok osatzen du, gizartetik baztertuta dagoen multzoa, bizitza duin eta autonomoa izateko aukerarik gabe.

Dagoeneko, promesek aspertzen gaituzte eta ekimenak nahi ditugu. Gure aldarrikapenek, behingoz, erantzuna jaso dezaten nahi dugu eta erantzun horiek bete daitezten, behar den dirua bideratzea behar dugu eta legalki betirakotzea, guretzat eta etorkizuenko belaunaldientzat.

Gure eskakizunak, oinarrizko justizian errotu eta gizarte demokratiko eta bidezko baten konpromisoan oinarritzen direla uste dugu.

Horregatik, erakunde municipal honi eskatzen diogu:

Pentsiodunen Mugimenduaren aldarrikapenak bultzatzea, ala nola:

- 1. Pentsioen Banaketa Sistema Publikoa eta pentsio duinen defentsa egitea.*
- 2. Europako Gutun Sozialaren eskaerak bete eta diru-sarrera nahikoa ezartzea:*
 - Lanbide-artearen gutxieneko soldata 1.200 €*
 - Gutxieneko pentsioa, 1.080 €*
 - Pentsioen igoera, automatiko eta iraunkorra izatea, gutxienez, eguneroko bizitzaren garestitzearen arabera.*
- 3. Prekarietatea ugaritu duten Lan-erreformatik eta 2011 eta 2013ko Pentsio-erreformen alde kategorriak ezabatzea.*
- 4. Soldata eta pentsioen generoko arrakaetik amaitzea.*



AJANGIZKO UDALA

Menpekotasun egoeran bizi diren pertsonentzat, legez bematzea zerbitzu SOZIO-SANITARIO eta Publikoen bitarteko prestazioak, diru publikoz ordainduak.

Adineko pertsona eta jubilatuentzako plangintza berezia egitea, beraien bizitza-baldintzak hobetze aldera eta horrekin batera, zerbitzu eta prestazio horien inguruan, Udaletxetik bideratutako informazio eta aholkularitza plangintza, antolatzea.

Herritarrei dei berezia egitea, pentsiodunen mobilizazioetan parte hartzeko eta bereziki azaro aldera egingo den mobilizazioarekin konpromisoa hartzeko.

12.- EH BILDUK AURKEZTUTAKO KLIMA ALDAKETAREN AURKAKO KONPROMISUAK HARTZEKO MOZIOAREN ONARPENA, BEHAR BADA.-

Ekaitz Lejarzegi zinegotzi jaunak, ondoren transkribatzen den EH BILDU taldeak aurkeztu duen Klima Adaketaren aurka konpromesua hartzeko mozioa irakurrita, botaziora aurkeztu da. Botazioaren ondorioz, honako emaitza jaso da:

- Aldeko botuak: bost (5) EH BILDU taldeko zinegotzienak.
- Kontrakoak: ez daude
- Abstentzioak: bat (1) EAJ-PNV taldeko zinegotziarena.

Valencia jaunak bere abstentzioa, mota honetako mozioak onartu eta herrian inolako akziorik ez dutelako jstufikatzen du.


Honenbestez, jasotako emaitza ikusita, Alkate Udalburuak mozioa onartutzat aldarrikatzen du.

KLIMA ALDAKETAREN AURKEZ KONPROMISOAK HARTZEKO MOZIOA

Larrialdi klimatikoa datozen urte eta hamarkadetako agendan sartu da. Gure ongizatearentzako mehatxua bihurtuz. Mundu mailako eta Euskal Herriko egoera eta joerak ez du baikortasunerako tarte handiegirik uzten. Gazteentzako dagoeneko kezka nagusia bihurtu da, ez bakarrik larrialdia, baita gaiari ematen zaion erantzun politiko eskasa ere.

Azken urte luzeetan komunitate zientifikoak aldaketa klimatikoaren bilakaeraren inguruko abisuak eta jakinerazpenak igorri ditu. Aldaketa klimatikoa, Berotegi Efektuzko Gasen isuri masibo baten ondorioz gertatzen ari da, eta isuri horien arrazoi nagusia, bakarra ez bada ere, gure metabolismo sozioekonomikoa mantentzeko erretzen ditugun baliabide fosilen erabilpenean datza. Aldaketa klimatikoa, beraz, guk eragiten dugu nagusiko, eta dagoeneko ondorioak antzematen hasiak gara.

Urtez urte argitaratutiko txostenetan, egoera kezkatzen ari denaren zantzuak ditugu. Nazioarteko hainbat erakunde eta lantaldeek argitaratzen dituzten txostenetan gero eta argiago esaten da klima eta energia politikan, eta ondorioz gure egunerokotasunean, eraldaketa sakon bat, iraultza bat, eman behar dela, baldin eta egoerari aurre egin nahi baldin badiogu eta aldaketa klimatikoaren efektu bortitzenak pairatu nahi ez baditugu. 2018ko urrian, IPCC Klima Aldaketari Buruzko Gobernu Arteko Taldeak, plazaturiko txosten berezi batean tonua altza zuen indarrean



AJANGIZKO UDALA

dauden politikek behar besteko anbiziorik ez dutela salatuz, eta elektrizitatearen, nekazaritzaren, garraioaren eta industriaren sektoreetan aurrekaririk gabeko aldaketak eskatuz.

2018ko azaroan, Nazio Batuen Ingurumen Panelak aditzera emandako txostenak egoera larria dela ohartarazten du, esfortzuak areagotzen ez badira hondamendira goazela azpimarratuz.

Gaia beste osotasunean ikusirik, argi dago ataka batean gaudela eta orain arte proposatu eta egindakoa berraztertu beharrean gaudela. Ahal dela, eta industria iraultza aurretiko egoerarekin alderatuta, 1,5°Cko tenperatura igoera ez gainditzea helburutzat zuen 2015eko Parisiko Akordioa betetzeko, orain arte emandako pausoak guztiz ez-nahikotzat jo beharrean gaude.

Hasieran genion bezala, zibilizazio erronka baten aurrean gaude, eta aurrez-aurre Jaurlaritzaren eragin esparru gainditzen dituen lanak baditugu ere, egoerak partekaturiko esfortzu bat eskatzen du.

Gure ustetan, ipar orratza ahalik eta azkarren karbono isurietan neutroa izango den Euskal Herri baterantz begira jarri beharrean gaude, eta horretarako ezinbestekoa da eraldaketa azkar eta eraginkorrek egitea. Prozesu honek gure jendartean inplikazio anitz eta sakonak ekarriko ditu, bai arlo produktiboan, bai mugikortasunean, bai lurralde antolamenduan eta bar, horregatik, deritzogu pausu azkar eta eraginkorrek ematea ezinbestekoa dela.

Mozio honen bitartez, egoeraren larritasuna aitortzea dugu helburu, Larrialdi Klimatikoari behar besteko arreta ipintzeko asmoarekin, aurrerantzean politika publikoak Larrialdi Klimatiko egoeraz kutsa daitezen.

Hori horrela, EH BILDU Ajangizko taldeak honako mozioa aurkezten du

1.- Ajangizko Udalak Larrialdi Klimatiko egoeran gaudela aitortzen du.

2.- Ajangizko Udalak, Jaurlaritzak larrialdi klimatiko egoera deklaratu izana aurrerapausu moduan ikusten du baina erronka honi aurre egiteko beharrezkoa den karbonogabetze prozesua 2040 urtera aurreratzeko moduko plangintza eta politikak abiatzera premiatzen du bai Eusko Jaurlaritza eta baita Bizkaiko Foru Aldundia ere. Karbonogabetze prozesuan lagungarri izango direlakoan besteak- beste ondoko politika publikoak abiatzera premiatzen du:

a.- Gernika-Lumoko ospitala benetako eskualde mailakoa bihurtzea. Bertako biztanleei arreta hurbilduz.

b.- Eskualdean bertan enplegua sortzeko baldintzak sortzea. Gaur egun enplegu eta bizilekuaren artean ematen den arrakala apurtuaz, izan ere Busturialdeko populazio aktiboaren %70ak eskualdetik kanpo egiten du lan eta karbonogabetze prozesu serio batean hori irauli beharra dago.

3.- Ajangizko Udalak, Jaurlaritza aldaketa klimatikoaren eraginez pairatuko ditugun ondorioetara egokitzeko neurriak har ditzala premiatzen du.

4.- Ajangizko Udalak, bere eskumenen baitan, Aldaketa Klimatikoari aurre egiteko politikak garatzeko ahalegina egingo du.

5.- Ajangizko Udalak, udalerriko herritar, eragile eta auzotarrekin elkarlanean Larrialdi Klimatikoari buruzko sentsibilizazio kanpainak landuko ditu.



AJANGIZKO UDALA

6.- Ajangizko Udalak bat egiten du, Larrialdi Klimatiko egoera dela medio, irailaren 27an deituta dauden ekintzak bultzatzeko. Eta herritar guztiak parte hartzera animatuko ditu.

7.- Ajangizko Udalak Bando baten bidez emango die mozio honen berri herritar guztiei.

8.- Ajangizko Udalak Bizkaiko Foru Aldundiari, Eusko Jaurlaritzari eta Espainiako transizio ekologikorako ministerioari bideratu die onartutako mozioa.

13.- ERREGU ETA GALDERAK.-

- Alkate jaunak, Aresti baserri inguruan, auzokideekin batzarra egin zuela aipatzen du. Batez ere kotxeen abiadurak sortutako kezkak konpontzeko egin bazen ere, beste zenbait gai ere mahaigaineratu ziren. Udalak bide horretan 30 Km/orduko kartela jarri du, eta Done Jakue bideak gurutzatzen duen puntuan ere stop batzuk jartzeko asmoa dauka. Auzotar batzuk kotxeen abiadura moteltzeko resalteak jartzearen alde bazeuden ere, oraingoz ez dira jarriko, abiadura kontrolatu eta zerbait esan behar badute udaletxean esateko geratu dira.

Aipatutako beste puntu bat euri ur guztiak Beitian lurretara doazela izan zen, eta horren kanalizazioa eskatu duela. Alkateak kanalizazio hori egiteko aurrekontua eskatu dela aipatzen du.

Bestalde, fibra optikoa etxeetara heltzen ez dela eta, Udaletik gutun bat bialdu zen Telefonicara, auzo horretan jarritako instalazioari alta eman diezaioten. Gai honetaz arduratuta, Gaizka Aspiazu eta Ekaitz Lejarzegi ziengotzian bertan auzoan izan dira, eta Telefonikak konfirmatu dien bezala, instalazioa eginda dago, baina alta ematea falta zaio enpresari. Teknikari bat bidaliko dutela esan diete.

Bukatzeko, herriko beste puntu batzuetan bezala arratoien arazoa ere agertu zen. Alkateak aipatzen du, zaborren bilketaz arduratzen den CESPAn enpresari dagoeneko eskatu zaiola zabor kontenedore azpitan sare edo regila bat jartzeko, arratoiek janarirako biderik izan ez dezaten.

- Leire Garatxea zinegotzi andreak, Ajangiz UEMAKo parte dela gogora arazten du. UEMAK laurogeita hamasei herri jasotzen ditu, eta herriak euskararen erabileraren arabera sailkatu dituela azaltzen du. Ajangiz sailkapen horretan goi mailan dagoela aipatzen du, 1000 puntutik 950 lortu dituela. Orain UEMAK Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera, Arnasa Gara proiektua jarri du martxan, euskararen erabilera bultzatzeko komunikazio proiektu bat. Proiektu horretan, Ajangiz arnagunea da, Bizkaiko beste bi udalerrikin batera, Dima eta Lekeitio. Hori horrela, datorren urriaren 25ean, arratsaldeko 19:00etan Mendietako frontoian ekitaldi handi bat ospatuko da, ETBk grabatuko duena eta Durangoko azokan aurkeztu ondoren ETBk, 11 Telebistak eta Nafarroako telebistak emitituko dutena. Herri guztia gonbidatuta dago.

- Bukatzeko Alkate jaunak, Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Elkargoan, Leire Garatxena Ajangizko zinegotzia lehendakari orde izendatu dutela jakinarazten du, eta lehendakaria Ana Ormaetxe Gernika-Lumoko zinegotzia.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, batzarra bukatutzat ematen da gaueko bederatziak eta hamarreen, eta horren sendespena egiten dut Udaleko bitarteko Idazkari naizen honek, Alkate Lehendakariaren oniritziarekin.

ALKATEA
Koldo Carbonell Oihartzabal

BITARTEKO IDAZKARIA
Saioa Pineda Aranburu